

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

EUSKO JAURLARITZA

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUN SAILA

Industria Administrazioiko Arabako Lurralde Ordezkaritza

Jendurrean jartzen baita Gasteizko udal-mugaratean dagoen «FRAGARIA SOLAR» eguzki-instalazio fotovoltaikorako (4,6 MW) eta hari lotutako azpiegituretarako aurretiko administrazio-baimena

48/2020 Dekretuaren 10. artikuluan (48/2020 Dekretua, martxoaren 31koa, zeinaren bidez arautzen baitira energia elektrikoa ekoizteko, garraiatzeko eta banatzeko instalazioen administrazio-baimenaren prozedurak) eta 24/2013 Legearen 53.1 artikuluan (24/2013 Legea, abenduaren 26koa, sektore elektrikoari buruzkoa) ezarritako ondorioetarako, jendurrean jartzen dira «FRAGARIA SOLAR» instalazio fotovoltaikoaren eta hari lotutako azpiegituren proiektua.

Espedientea: 01-GE-Y-2024-00046.

– Eskatzailea: Ventaja Solar 8, SL. (IFK: B88543574; helbidea: paseo Club Deportivo zenbaki gabe, 4. eraikina, 1. solairua, 28223 Pozuelo de Alarcón, Madril).

– Eskareren helburua: aurretiazko administrazio-baimena.

– Xedea: energia elektrikoa ekoiztea gero saltzeko den teknologia fotovoltaikoaren bidez.

– «FRAGARIA SOLAR» proiektua:

a) 10.452 modulu, 575Wp-ekoak.

b) 23 inbertsore fotovoltaiko, 200kW-koak. Guztira 4,6 Mwn-ko potentzia du.

c) 2.500 kVA-ko transformadorea duten transformazio-zentro 2.

d) Transformazio-zentrotik sekzionamendu-zentro partekatuaren sarrerarainoko lurpeko ebakuazio-linea. 1.511m luzera duena.

– Tartean dauden udal-mugarateak: Vitoria-Gasteiz. 36 industrialdea, 137, 138, 139 eta 140 lurzatiak.

– Husteko puntua: 30 kV-eko kokaleku berria VITORIA TAn, banaketa-sarean.

– Eguzki-instalazioak hartzen duen azalera: 4,99 ha.

– Aurrekontua (BEZik gabe): 3.705.809,36 euro.

Industria Administrazioiko Arabako Lurralde Ordezkaritzak eman behar dizkie proiektu hauei aldez aurreko eta eraikitzeke administrazio-baimenak, eta gero jendurrean jarri behar dira.

Hori guztia argitaratzen da, interesdunek eta, oro har, herritarrek bi proiektuaren gaineko dokumentazioa azter dezaten 20 egun baliioduneko epean, iragarki hau argitaratzen den egunetik aurrera, Industria Administrazioiko Arabako Lurralde Ordezkaritzan (Samaniego kalea 2, Vitoria-Gasteiz) eta Interneteko www.euskadi.eus webgunean (energia eta meategiak/energia ataleko proiektuaren jendaurreko informazioan: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/energia-meategiak/hasiera/>), eta egokitzen dituzten alegazioak aurkez dituzten.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 29a

Industria Administrazioiko Arabako Lurralde-ordezkaria
JOSE MIGUEL MUÑOZ SAN MARTÍN